

EGOKITU

Programa 2020

Egokitu 2020 programan aurkeztutako eta onartutako proiektuen azterketa

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. ONARTUTAKO ESKAERAK ETA PROIEKTUAK

2.1 Sektoreka aurkeztutako eta onartutako proiektuak

2.2 Onartutako proiektuekiko gogobetetasuna

3. WEBINARRAK

1. SARRERA

Kultura eta Sormen industrien (KSI) premia berriei erantzuteko sortu da EGOKITU programa, Covid-19aren pandemiak eragindako krisiaren aurrean.

ELGEk jasotzen zuen bezala, KSIak dira Covid-19aren krisiak gehien eragin dien sektoreetako bat, sektore turistikoarekin batera. Egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzako **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak** KSIei laguntzeko zerbitzuak KSI Berritzaile programaren bidez egokitzea eta indartzea erabaki zuen, **EGOKITU 2020 izeneko zerbitzu berria eskainiz**. Zerbitzu honen xedea zen orientazioa eta laguntza ematea **negozio-ereduan, finantzaketaren kudeaketan edo digitalizatorako aukeretan** aldaketa-beharrekin zerikusia duten erronkei aurre egiteko.

Zerbitzua bi erabiltzaile motarentzat izan zen: **KSI enpresa edo erakundeentzat, banaka, eta behar edo arazo komunak dituzten enpresa taldeentzat**.

Eskaera egiteko epea irailaren 1ean zabaldu zen eta 2020ko azaroaren 30era arte egon zen indarrean.

Banakako enpresek zerbitzua jasotzeko, **Diagnostiko espresa** bete zuten. **Diagnostiko** hori galdetegi gisa **planteatu** zen, hiru laguntza-esparruetako galderekin, hau da, negozio-eredua, finantzaketaren kudeaketa eta digitalizazio-aukerak, horietako bat lehenesten laguntzeko.

Enpresa-taldeei dagokienez, **txosten** bat osatu behar izan zuten, alderdi hauek **kontuan** hartuta: taldearen karakterizazioa, arazo komunaren definizioa, eskura zegoen informazioa eta emaitzak beste enpresa batzuei zabaltzeko planak (nodoa izanez gero).

Bi modalitateetan, **10 egun** izan zituzten izena ematen zutenetik diagnostikoa edo txostena osatu arte. Epe horretan betetzen ez bazen, erakundeek alta eman behar zuten berriro.

Diagnostiko espresak aukera eman zuen **10 ordu arteko aholkularitza mikro-laguntza lortzeko**, hiru eremuetako behar edo arazo jakin bati buruzko aholkularitza pertsonalatuarekin. Txostenaren azterketari dagokionez, **20 orduko aholkularitza pertsonalizatua**.

EGOKITU 2020k, halaber, **online prestakuntza** ere izan zuen, adituek emandako **webinarren bidez**. Hasiera batean, 2020ko irailetik abendura bitartean bi orduko 10 webinar egitea pentsatu zen.

Negozio-ereduaren eta Finantziarioaren Kudeaketaren esparruei laguntzeko, **EUSKALIT**en laguntza izan zen, eta digitalizazioaren esparrurako, berriz, **Teknaliaren eta Vicomtechen** laguntza.

2. ONARTUTAKO ESKAERAK ETA PROIEKTUAK

Guztira, **banakako 25 enpresak eta 2 enpresa-taldek hartu zuten parte**; horietatik 12 **banakako enpresak lehenetsi zuten negozio-eredua lantzea, 3 finantzazioaren kudeaketa eta 10 digitalizazioa. Bi taldeek digitalizazioa lantzea erabaki zuten.**

Egokitu 2020 parte-hartzearen laburpena:

Elkarteen txostena	Diagnostiko espresa	Laguntza mikro-aholkularitzaren bidez (iraila-abendua)		
		Negozio-eredua	Finantzaketaren kudeaketa	Digitalizazioa
2	25	12	3	12

2.1 Sektoreka aurkeztutako eta onartutako proiektuak

Egokitu programan **39 inskripzio izan ziren guztira**, baina **25ek** bakarrik osatu zuten eremu jakin batean laguntza eskatzeko beharrezkoa zen **diagnostiko espresa**.

Parte hartu zuten erakundeak:

DIAGNOSTIKO ESPRESA
1. ANGELICA BARCO STUDIO
2. IDEILAN DISEÑO SL
3. JONGO
4. SISU STUDIO SRL
5. ZIRKOZAURRE
6. GLOBAL SOUND
7. ARTINGENIUM
8. 3 WALKS
9. DE MIGUEL TALDEA, S.L.
10. EDORTA SANZ
11. UNAI BAIGES YURRE- ARRATE NUÑEZ ARTECHE S.C. (TEPSIS)
12. MARCANDO EL MERCADO
13. PATRIMONIO VIRTUAL, S.L. (ARKIKUS)
14. PROMOCIONES MUSICALES GET IN S.L.
15. TEKLAK. ESTUDIO DE COMUNICACIÓN Y AUDIENCIAS SC
16. GUAJIRA SICODELICA SL
17. BAGA BIGA PRODUKZIOAK S.L.
18. UTOPIAN, GETXOKO ANTZERKI ESKOLA
19. APRAIZ STUDIO (JULEN APRAIZ MARAÑÓN)
20. SAURE ARGITALETXEA, SLU
21. TEATRO PARAISO S.A
22. OPEN YOUR KOLEKTIBOA KULTUR ELKARTEA (ESPACIO OPEN)
23. FIDELIZA SL
24. XABIDE
25. ALFIL COMUNICACIÓN&EVENTOS

SEKTOREA	ERAKUNDE KOPURUA	PORTZENTAJEA
Publizitatea eta marketina	5	20%
Arte eszenikoak (antzerkia eta dantza)	4	16%

Diseinua (produktuarena, grafikoarena, barnekoena, hirikoa)	3	12%
Musika	3	12%
Eduki digitalak (aplikazioak, edukien softwarea)	3	12%
Kultur ondarea (museoak, artxiboak, kultur guneak, galeriak)	3	12%
Arkitektura	1	4%
Ikusizko arteak (pintura, eskultura, argazkia)	1	4%
Moda	1	4%
Argitalpenak eta baliabide inprimatuak	1	4%
GUZTIRA	25	100%

Elkarteen kasuan, **3 eskaera izan ziren**, baina **bik bakarrik osatu zuten txostena**:

TXOSTENA
1. HARROBIA-ESKENA/ TANTTAKA/ GAITZERDI-ROSA ABAL
2. KARRASKAN

SEKTOREA	ERAKUNDE KOPURUA	PORTZENTAJEA
Ikus-entzunezkoak (zinema, telebista, irratia, Internet)	1	50%
Arte eszenikoak (antzerkia eta dantza)	1	50%
GUZTIRA	2	100%

PROIEKTUEN LABURPENA

ERAKUNDEA	NEGOZIO-EREDUA	FINANTZAKETAREN KUDEAKETA	DIGITALIZAZIOA
ANGELICA BARCO STUDIO			
IDEILAN DISEÑO S.L.			
JONGO			
SISU STUDIO SRL			
ZIRKOZAURRE			
GLOBAL SOUND			
ARTINGENIUM			
3 WALKS			

DE MIGUEL TALDEA, S.L.			
EDORTA SANZ			
UNAI BAIGES YURRE- ARRATE NUÑEZ ARTECHE S.C. (TEPSIS TEATRO)			
MARCANDO EL MERCADO			
PATRIMONIO VIRTUAL, S.L. (ARKIKUS)			
PROMOCIONES MUSICALES GET IN S.L.			
TEKLAK. ESTUDIO DE COMUNICACIÓN Y AUDIENCIAS SC			
GUAJIRA SICODELICA SL			
BAGA BIGA PRODUKZIOAK S.L.			
UTOPIAN, GETXOKO ANTZERKI ESKOLA			
APRAIZ STUDIO (JULEN APRAIZ MARAÑÓN)			
EDITORIAL SAURE, S.L.U.			
TEATRO PARAISO S.A			
ASOCIACIÓN CULTURAL OPEN YOUR KOLEKTIBOA (ESPACIO OPEN)			
FIDELIZA SL			
XABIDE			
ALFIL COMUNICACIÓN&EVENTOS			
HARROBIA-ESKENA/ GAITZERDI-ROSA ABAL	TANTTAKA/		
KARRASKAN			

2.2 Onartutako proiektuekiko gogobetetasuna

Proiektuei esleitutako orduak amaitu ondoren (10 edo 20 ordu), gogobetetze-inkesta bat bidali zitzaizen parte hartu zuten erakunde guztiei.

Hala ere, 27 parte-hartzaileen artean **11 erantzun baino ez ditugu lortu (%40k erantzun du)**, inkesta guztiak anonimoak izan dira, eta, beraz, ez dakigu proiektua garatu duten erakundearen edo eremuaren izena.

Hona hemen emaitzak:

- **Balorazio orokorra: 8,2**
- Diagnostikoarekiko/Txostenarekiko gogobetetasuna: **7,8**
- Proiektuak ekarritako balioa (10 edo 20 ordu): **8,2**

Indarguneak

- Profesionaltasuna
- Enpresaren beharretara egokitua

Hobetu beharreko arloak

- Denbora gehiago eskaintzea (10 ordu)
- Ezarpenean akonpainamendurik eza

Bestelako iruzkinak

- Planteamenduak abian jartzeko ondorengo laguntzak ezartzea
- Aholkularien profila dibertsifikatzea

3. WEBINARRAK

[Bilbao Bizkaia Design Week \(BBDW20\)](#) delakoaren barruan, **bi webinar** egin ziren.

Juan García Canalesek (Tecnalia) eman zuen Digitalizazioaren arloan, azaroaren 24an. Landutako gaia ***Kulturaren eta Sorkuntzaren sektorean garapen teknologiko arrakastatsuko kasuak*** izan zen, **izena eman zuten 20etik, 13 parte-hartzaileekin**. Edukiak teknologia eta KSlak izan zituen ardatz, elkarreragiteko, sortzeko eta erakusteko modu berrien inspirazio-iturri gisa.

Beste webinarra azaroaren 25ean izan zen, eta **Julen Iturbe-Ormaetxe**, Sareko artisau-aholkularia, arduratu zen. Gai hau aukeratu zen: ***Negozio-eredu berriak, digitala aukera edo betebeharrak gisa?*** Honetan, **62 izen-emate eta 43 parte-hartzaile** egon ziren. Hona hemen landutako edukia: Zer da digitala? zer dago eraldaketa digitalaren atzean? nola osatzen da aldagai digitala? Eta adibide batzuk.